

PLASTIKO BIRZIKLATUZ EGINDAKO PARKE FLOTAGARRIA

Posted on 11/01/2019 by Naider



EL PARQUE FLOTANTE DE PLÁSTICO RECICLADO

El puerto de Rotterdam cuenta con un parque de 28 módulos flotantes hechos con residuos plásticos recogidos de sus aguas

naider

Gizakiak ozeanoak tona plastikoz betetzen ari dira, eta horrek larriki eragiten die itsas ekosistemei eta gure osasunari. Holandako Rotterdam hirian, arazo global hau ikusgai jarri dute, portuko uretan eta ertzetan bildutako hondakinekin egindako 140 m²-ko parke flotagarri bat sortuz. Parkeak landareen, lurreko fauna txikiaren eta arrainen mikro-habitat gisa ere balio du.

"Parke birziklatua", Recycled Island Fundazioak eta WHIM Architecturek Rotterdamgo Udalarekin egindako lankidetzaren emaitza da. Uretan sareak jarrita eta ertzetan boluntarioen lanarekin bildutako hondakinekin egin diren 28 hexagono flotagarritz osatuta dago. Portuari espazio berria eskaintzeaz gain, eta birziklatutako eta berrerabilitako materialaren balioa ikusarazteaz gain, hexagonoak landarez

estalita daude, hegazti, barraskilo, intsektu eta zizareentzako habitat gisa. Blokeen urpeko zatiak, bere aldetik, arrainak ugaltzeko leku gisa balio du.

There are no comments yet.